


## Irailaren 27a, Turismoaren Munduko Eguna

### ***EAEko hamar gaztetik zazpik diote atzerrira irten direla inoiz turismoa egitera edo oporretara***

Turismoaren Munduko Eguna dela-eta, [EAEko gazteen nazioarteko mugikortasuna](#) izeneko ikerketaren hainbat datu atera ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Ikerketa hori 2010eko udazkenean burutu zen, eta argitaratze-fasean dago.

Ikerketaren emaitzei erreparatuta, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %69 atzerrira joan dira inoiz edo zenbaitetan turismoa egitera, oporretara edo ikasketa-bidaletara.

Adinak gora egin ahala, arrazoi hori dela medio atzerrira joan direnen ehunekoak ere gora egiten du nabarmen.



Atzerrira turismoa egitera irten diren gazteen karakterizazio laburra eginez gero, zera antzeman daiteke: talde honen ia erdia (%46) 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldean dagoela; turismoa egitera atzerriratu direnen artean, hiriburuetan bizi direnen proportzioa handiagoa dela, gazteria orokorraren batez bestekoa baino (%37 Euskadiko hiriburu-taldearen batean bizi dira); bigarren mailako ikasketak dituztenak (%26) edo unibertsitatekoak (%30) gehiago dira atzerrira turismo egitera joan direnen artean, galdetegia erantzun duten gazte guztien artean baino; era berean, gehiago dira klase altukoak edo erdi-altukoak (%15), turismoa egitera irten ez direnekin alderatuta (%8); eta, bukatzeko, ingelesez dakitenak ere gehiago dira aztertzen ari garen taldean, turismoa dela-eta, irten ez direnengain baino: hain zuzen ere, atzerrira turismoa egitera joan direnen %54k diote ingelesez oso ondo edo nahiko ondo moldatzen direla; inoiz turismo egiteko atzerrira bidaiatu ez dutenen artean, ordea, ingelesaren ezagutza-maila %35era mugatzen da.